



Itxialdia gaur eta bihar, «euskal preso politikoen borrokaldiarekin bat egiteko»

Hernaniko preso politikoen senideek deituta egingo dute itxialdia, gaurko 20:30etatik biharko 19:00ak arte. Deialdia irekia da, eta herritar guztiak animatu dituzte itxialdian parte hartzera.

EUSKAL preso politikoen senideek dei egin diete hernaniar guztiei, gaurtik biharrera egingo den itxialdian parte hartzeko. Itxialdia udaletxean izango da, gaur 20:30etan sartu eta bihar, 19:00etan atera. Helburua da, batez ere, «euskal preso politikoa egiten ari diren borrokaldi ekin-tzekin bat egitea». Iniziatiba prestatu dutenek, herritarrei zabaldu nahi diete presoak zer salatzen ari diren, eta zein egoeratan dauden.

Lau salaketa

Itxialdia egin dutenek zabaldu egin nahi dute, zer den euskal presoek aldarrikatzen dutena. Euskal presoak borrokaldi batean daude, eta batez ere, lau eskaera egiten ari dira:

- 1-Gaixo larriak eta kondena osoa beteak dutenak kalera.
- 2-Bizi osorako zigorrak ez.
- 3-Dispertsioerik ez.
- 4-Estatus politikoaren erre-konozimendua.



Hernaniko senideek dei egin diete herritarrei itxialdian parte hartzeko.

Otsailean txapeoak

Otsailean protesta ekintza asko egiten ari dira euskal presoak. Hilabete honetan bisabisik ez da izango, presoek txapeoak egitea erabaki dutelako. Euren zeldetan atera gabe egotea erabaki dute presoek, batez ere salaketa bategatik: «kartzeletan senitartekoek jasan behar iza-

ten dituzten umilazioak eta bejazioak salatzeke, tratu txar horrekin bukatu dezaten».

Manifestazioa eta mahaia, Gudarien plazan

Itxialdiaz gain, beste bi ekintza ere egingo dituzte bihar Hernanin. Eguerdiko 12:00etatik 14:00etara mahaia jarriko dute Gudarien plazan.

Larunbatean, itxialdiari bukaera emanez, 19:00etan manifestazioa egingo dute, Gudarien plazatik.

Kartzeletako politika salatzeke amoz, espetxe zuzendariari eta Espainiako Gobernu-ko arduraduneri burofaxak bidali nahi zaizkie, ahalik eta jende gehienaren izenean. Izena emateko aukera izango da, mahai horretan.

Arratsaldeko 19:00etan, eta itxierari bukaera emanez, manifestazioa egingo da, Gudarien plazatik abiatuta.

Kontzentrazioa gaur

Ostiralero bezala, gaur kontzentrazioa izango da Zinkoenean, 20:00etan. Gaixo larriak eta kondena osoa beteak duten euskal presoak etxera lemapean egingo dute kontzentrazioa. ||

❖ UR LUDOTEKA

Etzi kiroldegian

Datorren igandean, ur jolasak izango dira Hernaniko kiroldegiko igerilekuan. Goizeko 10:00etatik 12:00etara uretan jolaserako aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. ||

❖ PRESOK

Egoitz Balerdi aske geratuko da gaur

Egoitz Balerdi hernaniarra aske geratuko da gaur baldintzapean, 10.000 euroko finantza ordainduta. 2009ko martxoaren 31n Espainiako polizia Hernanin eta Umietan egindako operazioaren ondoren espetxeratu zuten hernaniar gaztea. Teruelgo espetxetik aterako da. ||

❖ LAB

Kontzentrazioa gaur Zinkoenean

Hilabeteke lehenengo ostirala izanda, kontzentrazioa izango da gaur, 12:00etan Zinkoenean, LABek deituta. *Estatus politikoaren alde eta dispertsioaren aurka*, egingo dute kontzentrazioa eta herritarrei dei egin diete parte hartzeko. ||

❖ EZKER BATUA

Herritarrei deia, Europar Batasuneko ministroen kongresua salatzeke

Hernaniko Ezker Batuak dei egin die herritar guztiei, igandean, astelehenean eta asteartean Donostian egingo diren protesta ekitaldietan parte hartzeko, 12:00etan Bulebarran. Europar Batasuneko ministroek Donostian kongresua egingo dute egun horietan. Industria, Berriztapen eta Lehiakortasun ministroak dira Donostian bilduko direnak, eta zenbait eragile politiko eta sindikalek protestak antolatu dituzte: *Kapitalaren Europaren aurka, herrien eta langileen Europaren alde!* ||

Iñude eta artzainak, 120 gazte, igandean

Urumea ikastolako ikasleek osatuko dute konpartsa, urtero bezala. Goizeko 12:00etan abiatuta, Iñude eta Artzainez gain, izango dira, globeroak, barkileroak, sendagileak, erizainak...

BADIRA 18 urte, Urumea ikastolak *Iñude eta Artzainen* konpartsa kalera ateratzen duela, iñauteri aurreko aste-buruan. Aurten ere, 120 ikasleek osatutako konpartsa ibiliko da, igandean, eguerdiko 12:00etatik aurrera, Urumea ikastolan abiatu eta Urumea

ikastolara buelta, kale buelta egin ondoren.

Gudarien plazan, antzezlan nagusia

Konpartsak kale buelta luzea egingo du, musikaren eta dantzariaren erritmoari segika, eta jende asko begira dutela.

Ibilbidea: Urumea, Plaza, Kardaberaz, Plaza Berri, Zinkoenea, Txirrita, Urbieta, Kale Nagusia, Plaza, Urumea.

Ekitaldi nagusia Gudarien plazara iristean egingo dute. Bertan iñudeen haurrei txertoa jarri, agintarien aurrean aurkeztu, eta erregistroan izena emango diete. Arin-arinarekin emango diote bukaera ekitaldiari, eta ikastolara bueltatuko dira, beste urtebetez. ||

TRIPA BETE NAHI?

sabemos castellano

taberna tripontzi

PINTXOKA, BAZIAK, ENTZALADA, PLATER, BONINATUBA

ZATOZ DASTATZERAK!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI • 943 555 724

AMAI

ARRAINAK
ITSASBIAK
FRESKO ETA
IZOZTUAK

RRANDEGIA

Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

asteartetik
igande eguerdira
irekita

OTSUA-ENEA

Osiñaga auzoa
Tel. 943 55 68 94

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Eguzte:** **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941 ● **Gauzez:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Giro nahasia izango dugu. Zerua oso lainotuta egongo da eta zaparradak botako ditu, baina tarteka eguzkia ikusiko dugu. Temperatura igo egingo da. Min.8° / Max.13°.
BIHAR Zerua lainotuta egongo da eta euri txikia egingo du. Iparmendebaldeko haizeak gogor joko du tarteka. Temperaturan ez da aldaketarik izango. (euskaime)

Eztarri sano ugari aterik ate oles egiten

Goiz eta eguerdi partean ikastetxeen txanda izan zen. Ondoren, helduen koadrilak atera ziren santeskean, Kaxkoan barrena eta Ereñotzun.

SANTA Ageda bezpera izanda, koadrila mordoxka ibili zen atzo Hernanin santeskean. Makilak eskuan, eztarri sano eta gogoz kantatu zuten. Goiz eta eguerdi partean ikastetxeetako haur eta irakasleak ibili ziren aterik ate oles egiten, eta arratsaldean, Ohitura Zaharrak, Goiz Eguzki eta Kantuz abesbatzek hartu zuten erreleboa. Ohitura Zaharrak abesbatzakoek gainera, kantu-paperak banatu zituzten eta jendea kantuan aritu zen beraiekin. Ereñotzun ere ez zuten hutsik egin. ||



Goian, jendea kantuan Ohitura Zaharrak abesbatzarekin. Behean, Urumea ikastolako ikasleak kantuan.

❖ OSIÑAGA

Batzarra igandean

Urte hasierako batzarra egingo dute Osiñagako auzo elkarteak. Bost puntu izango dira hizketagai batzarrean. Igandean, 12:00etan, Arriatsu eskolan. ||

❖ ZINEA

Bi pelikula Biterin, asteburuan: 'No es tan facil' eta 'Donde viven los monstruos'

Asteburu honetan helduentzat, *No es tan facil* pelikula emango dute: gaur, 22:00etan; bihar, 19:30 eta 22:30etan; eta igandean, 19:30etan. Haur eta gazteentzako, *Donde viven los muertos* pelikula izango da: bihar eta igandean, 17:00etan. ||

❖ EGUNKARIA LIBRE!

Elkarretaratzea Donostian, gaur

Hernaniko Egunkariaren aldeko kultur elkarteak dei egin die herritarrei, parte hartu dezaten, gaur, 12:00etan, Donostiako Bulebarrean egingo den elkarretaratzean. Egunkaria auzia salatzeko izango da. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Neska arduratsua eta erreferentziaduna umeak zainduko lituzke arratsaldetan.
Deitu: 646 940 487

Bigarren eskuko bazarra, denetatik eta zentimo gutxigatik hasita, baita zilarra ere fabrikako prezioetan: otsailaren 3tik aurrera (10:00etatik 13:00etara). Egun gutxi batzuetan bakarrik, Karmelo Labaka 1 zenbakian.

Pisu baten bila nabil alokairuan (abala), 2 logela. Deitu: 608 671 844.

Pisua salgai Karabela. 60m2, 2 logela, sala, sukalea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.

Pianoa salgai. Yamaha U1F modelo, bigarren eskuko. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzalea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

IES HERNANI BHI

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

12-18

Etorkizuneko Bideak eraikiz

INFORMAZIO GEHIAGO HERNANIKO
ERREFERENTZIZKO IKASTETXEETAN

Telefonoak:

☎ 943 551188

☎ 943 551958

☎ 943 330080

☎ 943 552633



MATRIKULA EPEA: OTSAILAK 1-12

BATXILERGOAK



GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA



HEZIKETA ZIKLOAK



MEKANIZAZIOA (ERDI MAILA)
INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK (ERDI MAILA)
PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA (GOI MAILA)
INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK (GOI MAILA)